

Zifra indiarak

Gaur egun Indian estilo desberdina erabiltzen dira. Guztiek dute elkarren antza eta ezbairik gabe gure zifren jatorria erakusten digute:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	0
devaragari modernoa	१	२	३	४	५	६	७	८	९	०
maharashtrera	१	२	३	४	५	६	७	८	९	०
nepalera	१	२	३	४	५	६	७	८	९	०
bengalera	১	২	৩	৪	৫	৬	৭	৮	৯	০
orija	୧	୨	୩	୪	୫	୬	୭	୮	୯	୦
gujaratera	૧	૨	૩	૪	૫	૬	૭	૮	૯	૦
sarada	१	२	३	४	५	६	७	८	९	०
sindiera	१	२	३	४	५	६	७	८	९	०
punjabera	१	२	३	४	५	६	७	८	९	०

Zifra indiarak

Zifra erromatarrak

Gaur egun ez dira asko erabiltzen; mendeak, hilak, kapituluak, eta abar adierazteko besterik ez dira.

I	V	X	L	C	D	M
1	5	10	50	100	500	1000

Morse alfabetoko zifrak

Morsek 1832. urtean telegrafoa asmatu zuenean sortu ziren eta telegrafian erabiltzen dira. Itsasuntziek ere, argien bidez komunikatu behar dutenean morse alfabetoa erabiltzen dute:

0	-----	1	.-----
2	..-----	3	...----
4-	5
6	7	-----.
8	-----.	9	-----.

HAMAR ZIFRAK

Patxi Angulo

“Elhuyar, Zientzia eta Teknika” aldizkariaren 1990. urteko 34-39 aleetan, zifren historia kontatu genizun. Haatik, historia hartatik ez ziren pasa zifra-mota guztiak. Artikulu honetan ordea, gaur egun erabiltzen diren zifra-mota batzuk aipatu nahi ditugu.

Zifra arabiarak

Jatorria Indian izan zuten eta Europa arabiarrek ekarri zituzten. Horregatik deitzen zaie horrela.

١	٢	٣	٤	٥
1	2	3	4	5
٦	٧	٨	٩	٠
6	7	8	9	0

Zifra arabiarak

Zifra horiek azken aldaketa nabarmena jasan dute eskuzko kalkulagailu digitalak sortu direnean:

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---


ASCII

Ordenadoreetan erabiltzen den kode estandarizatu dugu ASCII. ASCII kodean hitzak 8 bitez adierazten dira, bit horietan 0 ala 1 ikurrak agertzen direlarik. Hona hemen ohizko zifrei dagozkien hitzak:



0	00110000	1	00110001
2	00110010	3	00110011
4	00110100	5	00110101
6	00110110	7	00110111
8	00111000	9	00111001

Braille sistema

Braille alfabetoa itsuek irakurri eta idatzi ahal izateko asmatu zen. XIX. mendearen lehenengo herenean asmatu zuen Louis Braille itsua. Metodoa sei punturen konbinazioan oinarritzen da, hiru puntuko bi zutabetan kokaturik. Idazkera erliebean egi-



ten da ukimenaz irakurri ahal izateko. Zifrak adierazteko alfabetoko lehenengo hamar letrak erabiltzen dira, zenbaki bat idazten den bakoitzean, aurretik zenbaki-ikurra idazten da.



Gormutuen sistema

Itsuen kasuan bezala, alfabeto berezia asmatu zen gormutuak komunikatu zitezten. Alfabeto hori eskuen keinuetan oinarritzen da. Ikus beheko irudia.

Nabigazio-sistema

Itsasoa komunikatzeko irratia izan da bide nagusia. Irratien bidez zenbakiak irakurtzeko zifrei izen bereziak eman zaizkie:

7	Setteseven	SE TE SEVN
8	Oktoeight	OK TO EIT
9	Novenine	NO VE NAIN

Hala ere, itsasuntzi guztiek banderen sistema eraman behar dute beste komunikabiderik erabili ezin dutenerako. Sistema horretan zifra bakoitzari banderatxo bat dagokio. Ikus goiko irudia.

Mila esker **ARANS-GUI** eta **ONCE** erakundeei.

Zifra	Hitza	Ahoskera
0	Nadazero	NA DA SE RO
1	Unaone	U NA UAN
2	Bissotwo	BIS SO TU
3	Terathree	TE RA TRI
4	Kartefour	KAR TE FOER
5	Pantafive	PAN TA FAIV
6	Soxix	SO XI SICKS



0 Eskuineko erakusleak eta erpuruak O itxura eginez, beste hiru hatzak gora.



1 Eskuineko eskua itxita, erakuslea bakarrik luzatuz.



2 Eskuineko eskua itxita, erakuslea eta luzea altxaturik.



3 Eskuineko eskua itxita, erakuslea, luzea eta nagia gora luzatuz.



4 Eskuineko eskua irekia, erpuru ahurraren gainean eta hatzak banandurik.



5 Eskuineko eskua irekia, hatzak banandurik.



6 Ezkerreko eskua aurrekoan bezala, eskuinekoa itxita eta erakuslea gora luzatuz.



7 Ezkerreko eskua aurrekoan bezala, eskuinekoa itxita eta erakuslea eta luzea gora.



8 Ezkerreko eskua aurrekoan bezala, eskuinekoa itxita eta erakuslea, luzea eta nagia gora.



9 Ezkerreko eskua aurrekoan bezala, eskuinekoa irekia eta erpuru ahurraren gainean.

Bederatzi bitarteko zenbakiak gormutuen sisteman.